


ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



San Sebastian Oñatin

Hirugarren gizaldixan Milanen jaixotako **soldadu erromatar hau** mailla oso altura heldu zan kristandadian santu eta martirixen artian. Aurretik Diokleziano **enperadoriaren konfiantzazko kapitana** be izan zan. Baiña **enperadoriak**, Sebastian kristau sutua izanik, bere fediarri gogor eusten otsala konturatu zanian, amorratuta, bere militarrik estimatuenetakua **geziz zulatuta hilttia aginddu eben**. Hala eta guztiz be, etzan berihalakuan hil, eta hori millagrotzat hartu euen askok. Orduan Dioklezianok, bere onetik urtenda, zigor izugarrixa ezarri otsan Sebastianeri: Erromako zirkuan, jente danaren aurrian, akabo arteraiñoko egurtua emutia. Hartara **martirixo bikoitza** sufridu bihar izan eben.

Horrenbestez, ba, ixa hasieratik, eta apostolua izan barik, **santurik famauenetakua bihurtu zan** Sebastian eliza katolikuan, eta menderik mende iraun eben bere ospiak. Martirixuaz gaiñera, beste arrazoi bat egon zeiken hartarako: aspaldittik, **San Roke-ekin batera, izurritien kontrako zaindarixa izendatua** izan zan. Oraintxe letxe, heriotza mordua ekarten euen leku askotara, takian-potian, batera eta aguro zabalketan ziran peste eta gaitz bildurgarrixak. Txertuen faltan, beste erremedixo batzuk billatu bihar izaten ziran, edota santu berezixen babesa, hau da, San Sebastian eta San Roke. Horregatik alkarrekin agerketan dira bixok gehixenetan, ezker-eskumatan, parrokixa eta ermittetako altara eta erretauletan.

Oñatin, Sebastianek bere izeneko ermittarik euki ez arren, **hainbat tokittan topau geinke bere irudixa**. Samur asko ezauketako modukua da, gaiñera: **zutik, erdi pillosik, poste edo arbola bateri lotuta, eta gorputza geziz jositta**. **San Migel parroki-xan**, batetik, **altara nagusiko erretaula barrokuaren goixenian agiri da**, ezkerreko ertz batian; eta bestetik, erraja artian dagueu **unibersidadeko kapilliaren erretaula plateresko bikaiñaren goiko aldian**, eta hemen be ezkerretik. **Sancti Spiritus unibersidadeko kapilliak** beste erretaula plateresko eder bat dako, San Sebastianekin hirugarren kalian eta erdi aldian. Hiru erretaula honeittan, illara berian, San Roke agerketan xaku, baiña aparte. Eta **San Martingo ermittako eskumako altaran** be ikusiko dogu San Rokeren onduan.

Herriko parrokixa nagusixa Erdi Aruan moduketiari ekin otsainian, hasierako zatixa **San Sebastianen nabia** moduan izentau ei zan. Baita plaza aldera emuten eben atia be, orain itsututa, tapauta dagueu. **Antxiña**, San Migel beraren aurretik, **Oñatiko patroia** soldadu martiri hau izan zala uste dauenik ba ei da. Esan daigun azkenik, **gure herriko prozosiño famauenian**, Korpuztietakuan, **bizkar gaiñian** eruaten dittuein santuen artian dagueu San Sebastian.

Prozosiñoeko argazkixak Jexus Irizarrek eskuratu dosku; eta unibersidadeko kapillako irudixak Pedro Etxeberria eta Xabier Martiarenaren **Oñatiko unibertsitatearen kaperako erretaula** deritzon liburutik hartuak dira. Milla esker!